


SAN PELAIO

ZARAUZTARRON
ZAINDARI

*Diá San Pelayo
Barrio Inuitza
Zarauz - 1.928*

N. Mugica

En La Orotina



*Día San Pelayo
Barrio Inuitza
Zarauz - 1.928*

N. Múgica

Don La Orotina



SAN PELAIO

ZARAUZTARRON ZAINDARI

*Azaleko irudia: Nicolás Múgica (Nicol). 1928.
Inprimategia: Itxaropena S.A.*

SAN PELAIO
ZARAUZTARRON ZAINDARI

ZARAUZKO UDALA
SANZ ENEA LIBURUTEGIA
2021



Ozenago edo baxuago, ez dago zarauztarrik San Pelaioaren ereserkia lau haizetara abestu ez duenik. Batzuek, leloa bakarrik, beste batzuek, abesti osoa, baina badu "Pelaio, Pelaio" kantatzeak halako ahalmen itsaskor bat, herri bereko arimaren parte garela sentiarazteko gaitasuna. Talde sentimendua pizten du, izaera indibidualaren gainetik.

Baina, zergatik hartu dugu zarauztarrok San Pelaio zaindaritzat? Ahozko tradizioak utzi ditu bere arrastoak, loturarik gabeko datuak zenbait sutondotan, baina gehienok itsu-itsuan gabiltza, norbaitek ezarritako jagole bat ote den galdezka edo naturaz gaindiko fantasiatzko zergatiaren zain.

Iluntasun-eremu horretan argi pixka bat egiteko asmotan, ondorengo bi testuak aurkezten dizkizuegu: lehenengoa, Anjel Lertxundik 1993an argitaratutako "Tresak eta kordelak" bildumako azken ipuina. Istorio hori Aita Frantziskotarren komentuko liburutegian pasatako orduen ondorioa da, han eta hemen jasotako informazioaren fruitua, baina, hori bai, une oro idazlearen irudimenarekin egokiro atondutakoa. Bigarrena, Felix

Ortiz y San Pelayo azpeitiarrak 1884ko lehen sei-hilekoan "Euskal-Erria" aldizkarian argitaratutako artikulua.

Biak antzekoak izanagatik ere, alde nabarmenak dituzte, eta azalpenaren iturria guztiz irekitzen ez badute ere, lortzen dute zarauztarron jakituria-egarria asetzea, betiere gehiago edateko grinari atea guztiz itxi gabe.

Nahiz eta arrazoia bata, bestea edo besteren bat izan, San Pelaioren mantuak gorde gaitzala zarauztarrak, nortasunaren seinale, batasunaren ikur, herritartasunaren marka gisa.

ANJEL LERTXUNDI

Zarauztarrok hartu zaitugu

Dokumentu nagusiaren sarrera:

*TRESAK ETA KORDELAK (1993), 98-102 or.
2021ean egileak berrikusia.*



Zarauztarrok hartu zaitugu

1

Sekulako ekaitza izan zen gau hartan. Ematen zuen haize-enbatek errotik atera behar zituztela herriko etxeak; tximistek zero osoa argitzen zuten aldiro, aldiro lehertzen zuten gaua trumoiek. Hotsek eta zaratek munduaren azken eguna oihukatzen zutela zirudien...

Pasatu zen, ordea, gaua eta argitu zuen egun berriak. Ekaitza baretzen hasia, zarauztarrak ekaitzaren pikardiak aztertzen hasi ziren. Bati teilatu puska eraman zion haizeak; beste bati meta erre zion tximistak; urliari ura sartu zitzaion sotoan eta artean igeri zeuzkan txakolin egin berriaren kupelak.

Talaimendi inguruan mahastia zeukan baserriar batek eman zuen abisua: kanalaren inguruan naufragio baten arrastoak zeuden.

Albistearekin kezkatuta, inguratu ziren zarauztarrak bertara eta itsasontzi baten puskak,

bela urratu bat, masta lodia erdi-erditik kras-
katua... Ez zuten naufragioan galdutako ez nau-
fragiotik salbatutako marinel bakar baten arras-
torik aurkitu. Mollarrirainoko harralde osoa
miatu zuten, hondartza zeharkatu alderik alde,
baina alferrik: ontziko marinelek itsasoan gal-
duak behar zuten.

Halako batean, oihu egin zuen bihurri-plan-
tako mutil koskor batek, irudi bat seinalatuz
ontzi galduaren ohol artean:

–Begira, begira hemen!

Egurrezko taila txiki polit bat zen, eta irudiko
mutil gazteak palmondo bat zeraman eskuan.

Kontu handiz hartu zuten egurrezko taila. Iru-
diaren bizkarrean letra batzuk. Latinez. Hara
bildutakoen artean bazen irakurtzen zekienik,
baina latinez zekienik, ez.

Herriko apaizari erakutsi zioten irudia. Apai-
zak modu pausatuan irakurri zuen:

–Sanctus Pelaius, martyr.

–Nor da?

–San Pelaio martiria.

–San Pelaio? Hara! Sekula entzun halako ize-
nik!

Apaizak santuaren bizitza kontatu zien. Na-
hiago izan zuela bizia galtzea erregearen au-
rrean fedea galtzea baino. Zarauztarrek patroitzat
hartzea erabaki zuten fedegatik bizitza ematera
prestatu zen santu gazte hura.

Ermitatxo bat eraikitzen hasi ziren santuaren
omenetan. Irudia aurkitako toki berean zegoen
jaso zuten harrizko eraikin txikia, kanalaren
ondoan eta itsasoaren aurrez aurre, harkaitz
sendo bat oinarritzat hartuta. Marea bizietan beti
sartzen zen ura bertara, eta hondarrak zoru guztia
estaltzen zuen, baina zarauztarrei ez zien axola-
rik ekaitz bakoitzaren ondoren eliza garbitu be-
harrak: ohituta zeuden urtean bizpahirutan lan
bera egitera beren soto eta etxeetan ere.

2

Behin, ohi baino marea zakarragoa izan zen batean, joan zen hainbat zarauztar beti bezala eliza garbitzera eta sekulako hondamendia ikusi zuten bertan. Ura santuaren apalaren pareraino heldu zen nonbait, hormako zakar-arrasto bustiek adierazten zutenenez. Baina santuaren irudi politaren arrastorik ez!

Zarauztarrak triste hasi ziren hondarra, aldea bera ere estaltzen zuena, erretiratzen. Hain modu bitxian aurkitu zuten irudia, hain modu bitxian galdu beharra ere!, esaten zioten elkarri pena handiz.

Zarauztarretako batek patxada filosofiakoarekin eta esamolde zahar batekin laburbildu zuen egoera:

–Urak dakarrena, urak daroa.

Etsita, baiezkoa egin zuten gainerakoek beren buruez, eta jiratu zirenean etxeko bidea hartzeko, aspaldi batean irudia aurkitu zuen mutil kosko-

rraren traza bereko beste mutil koskor bihurri
batek oihu egin zuen:

–Begira, begira hemen!

Aldarearen parez pare, hondarretan ia estalia,
santuaren irudia zegoen. Eskua –eta eskuan pal-
mondoa–, ez zitzaion besterik ikusten.

–Eliza hau ez duk batere toki segurua –esan
zuen batek– Gutxiena espero dugunean, ez eliza
eta ez irudi geldituko gaituk.

Elkarri begira gertatu ziren guztiak, isilik, ara-
zoari buelta nola eman asmatu ezinez.

–Eliza berri bat eraiki behar zioagu santuari,
baina toki seguruago batean –esan zuen aurreko
gizon berak.

–Non, ordea?– galdetu zuen esamolde filosofi-
koak kale egin zion baserritarrak.

Mutil koskorrak, auskalo zenbat urte lehen-
ago santua aurkitu zuen beste mutil koskor haren
bihurri-planta berekoak, esan zuen:

–Iñurritzan.

–Iñurritzan? Erotu egin al haiz! Zergatik, ordea, Iñurritzan? Kainaberaz eta putzuz betetako zingira bat duk Iñurritza, motel.

–Santuak han nahi du –esan zuen mutil koskorrak.

–Santuak... han nahi duela? Hik nola dakik! –galdetu zuen baserritar erdi filosofoak, mutikoari goitik behera begiratu.

–Begira santuaren eskuari...

Santuaren eskuak Iñurritza seinalatzen zuen, gaur San Pelaioko eliza dagoen tokia.

Parrokiara eraman zuten santuaren irudia, prozesioan, herri guztia atzetik zuela, eta parrokiaren egon zen, eliza berria eraiki bitartean.

3

1851. urtean inauguratu zuten Iñurritzako eliza berria, eta parrokiatik bertara eraman zuten santua, letaniak eta aleluiak kantatuz.

Apaizak latinez esaten zuen:

–Sanctus Pelaius!

Eta herritarrek erantzuten zioten denek batera:

–Ora pro nobis!

Aldarearen ertz batean jarri zuten santua lorez inguratuta, eta ordutik han dago behin batean bihurri-trazako mutil koskor batek ontzi galdu baten ohol artean aurkitutako irudia eta beste batean haren bihurri-traza bereko beste mutil koskor batek hondarretan erdi hondoratuta aurkitutakoa.

Zarauztarrak, herritik kanpo bizi zirenak batez ere, San Pelaiorekin oroitzen ziren hiltzeko zorian eta testamentua egitera behartzen zirenean:

“Nik, Fermin de Iñurritzak, Sevillatik agintzen dut jartzeko nire diruarekin zilarrezko kriseilu tzar bat nire herriko San Pelaio elizan...”.

“Nik, Santiago de Arbestainek, Indietatik jakinarazten dut nire azken borondatea: nire ondasetatik zortzi errealeko hogeita bost diru eman behar zaizkio nire herriko San Pelaio elizari...”.

“Nik, Pedro de Elcano eta Balda, Perutik erabakitzen dut: bidal ditzatela Zarautza bostehun peso, San Pelaio elizarako gordeak ditudanak, eta gasta ditzatela santuak ohorea eta estimua izan ditzan, eta eliza, berriz, beti txukun egon dadin, bertako bikarioak eta bertan bizi den nire anaia Frantzisko Manuel Elkanok esandako eran...”.

Bada, testamentu eta opari hauen albisteen artean, beste bat bitxi askoa. Juan De Iturriondo jesuita zarautzarrak Oviedotik, San Pelaio hil zuten hiritik, santuaren hainbat erlikia ekarri zituen. Bi dira bereziki aipagarri:

Brusa zuri baten puska batzuk, oihal fin-finekoak, eta odolez blaituak: brusa hura jantzita

**martirizatu omen zuten santua. Bigarren erlikia
ere oihala zen, aurrekoa baino lodiagoa eta odo-
lez bustia hura ere: santuaren kaparen puska bat
zen.**

4

Zarauztar petoak eztarria urratu beharrean eta lepa-zainak lehertzeko zorian kantatu ohi du San Pelaio bezperan Zarauzko himnoa. Letra osoa dakitenen eta ez dakitenen artean banatzen omen dira zarauztar jatorrak eta zarauztar pedigree gabeak: himnoa ez dakiena ez omen da zarauztar jatorra, San Pelaiok hala esan omen zuen behin aldaretik, himnoa lehendabiziko aldiz kantatu zutenean.

Baina nork idatzi zuen himnoaren letra, nork musika?

–Auskalo! Bizarginak edo... –esango luke herriko jende askok.

–Joakin, joan eta jakin! –erantzungo luke beste jende askok.

Ez zen Auskalo bizargina izan letraren egilea, ezta Joakin ezjakina ere musikaren egileak.

1920. urtea da. Maiatza. Laster dira san Pelaioko festak. Bi fraide paseoan dabilta Za-

rauzko konbentuko baratzean atzera-aurrera. Juan Jose Natibidad Garmendia du izena batek. Musikaria da eta idatziak ditu arrakasta handiko piezak, elizako kantuak dira guztiak. Jose Maria Azkue da bigarren fraidearen grazia. Idazlea da, testu erlijiosoak maite ditu batez ere.

Fraideetako batek ukondotik heldu dio besteari:

–Aizak, Jose Mari... Konturatzen ala haiz zarauztarrek ez daukatela himnorik?

–Bai, gizona, eta tristea duk... Etorriko dituk aurten ere San Pelaioko festak, eta ez diagu meza nagusian zer kantaturik izango santuaren omenez.

–Egia. Lastima duk!

–Ea, Juan Jose, anima hadi. Molda ezak musika polit bat, herrikoia, zarauztarrek harrotasunez kantatzeko modukoa.

–Konforme. Baina baldintza batekin: hik mol datzen baldin badidak letra egoki bat.

–Baina... Letra bat? Zer zakiat nik San Pelaio-
ren bizitzari buruz? Fedeagatit bizia eman zue-
la, paper zaharretan ez duk besterik ageri.

–Tira, motel, aterako zaik zerbait...

Ez bat eta ez bestea dira zarauztarrak. Bizkaita-
rra da musikaria, Meñakakoa. Letragilea, Erren-
terriakoa.

Letragileak orduak eta orduak egingo ditu
konbentuko liburutegian liburu zaharren artean,
San Pelaioaren bizitzari buruzko datuak biltzen.
Ezer berririk aurkitzen ez, eta inprobisatzen ha-
siko da. Kontu bat dauka garbi: Zarauztarrak
izango dira kantuaren hasierako protagonistak:

‘Zarauztarrok hartuko zaitugu...’

Handik gutxira letragile errenteriarrek bertso
pare bat pasatu dizkio musikari meñakarrari:

–Ezertarako balio baldin badik...

Biharamunean, mezetan daudela, letragileak
ordura arte ezagutzen ez zuen musika bat en-
tzun du organoan:

Fa-do-do-la-fa, sol-mi-fa-re-do
fa-sol-la-do, re-si-dooo...

Handik hilabetera, aita Garmendia San Pe-
laioko harmonium apalaren aurrean dago. Hasi
da teklei eta pedalei eragiten, eta inguruan di-
tuen beste hiruzpalau fraide, tartean Jose Maria
Azkue, kantari hasi dira gogobero:

Zarauztarrok hartu zaitugu
Peelaio, Peelaiooo!

Jendeak ere, beheko bankuetatik, errepikatu
egingo du zatirik errazena:

Peelaio, Peelaiooo!

Zarauzko himnoa jaio da.

ANJEL LERTXUNDI.



FÉLIX ORTIZ Y SAN PELAYO

**San Pelaioko ermita
Zarautz inguruan**

*La Ermita de San Pelayo en las
inmediaciones de Zarauz*

Dokumentu nagusiaren sarrera:

*Euskal-Erria: revista bascongada T. 10 (1o sem.
1884), p. 293-298.*



SAN PELAIOKO ermita ZARAUTZ INGURUAN

Zarautz inguruan betidanik egon da, eta dago oraindik ere, San Pelaio herriko Zaindariari eskainitako ermita.

Jatorrizko ermita, edo, behintzat, jatorrizkotzat hartzen dena, itsasertzean zegoen, Orio eta Zarautz banatzen dituen Mendi-beltz mendiaren oinetan.

Egungo ermitak aurrekoa zegoen tokitik ehun bat pausotara eusten die bere horma ahulei. Esan bezala, ez dakigu jatorrizko ermita zer garaitan eraiki zuten, ondoren aipatuko ditugun dokumentuek ere ez baitute ezer argitzen tradizioak belaunaldien liburuetan galtzen utzi duen datu preziatu horri buruz.

Dokumentazio autorizatueta ere ezin izan dugu aurkitu zerk bultzatu zituen Zarauzko herritarrak San Pelaio zaindaritzat hartzera.

San Pelaio Tuy-n jaio zen, X. mende hasieran. Bertako obispo eta osaba zuen Hermosioek preso eskaini zion Abderraman III errege moroen arte-tik handizale eta harroenari, haren askatasuna-ren truke. Azken horrek haur santua zatikatzeko eta Guadalquivir ibaira botatzeko agindu zuen, Jesukristorenganako fedea aitortu zuelako. Bai-na, begiratu batean, ez dirudi zarauztarrak fedea-ren martiri gaztearen bila joan zirenik martiritza gertatu eta hain urte gutxira, haien bitartekari izan zedin hain loriatsuki hazi zuen Erreinuan.

Zarauzko apaiz izandako Joan de Echeveste jau-nak 1619¹. urtean bukatutako obra argitaragabean jasotakoaren arabera, lan handia egin zen san-tuaren erlikiak lortzeko eta eraiki zitzaion ermi-tan jartzeko. Hainbeste lan egin zuten, ezen hiz-pide dugun herriko seme Joan Iturrondo Jesusen Konpainiako² Anaia duinak hainbat erlikia ekarri baitzituen Oviedotik. Horien benetako dokumentuak irakurtzeko ohorea izan dugu, le-hen aipatutako Echeveste jaunaren obran.

¹ Zarauzko fundazioari eta bertako gertakari garrantzitsuei buruzko obra argi-taragabe horren bi ale bakarrik daude. Jatorrizkoa Zarauzko Narrosko Markes jaunaren artxiboan dago; eta, bestea, albisteen arabaera, probintziako diputatu ohi Lardizabal jaunak dauka.

² Jurisdikzio honetako Agirre izeneko baserrian jaio zen.

Zarauzko elizako parroko Arizmendi jaun duinak 1852. urtean santuaren egunean euskaraz egindako sermoi eder batean, hau esan zien bere eliztarrei: “Gerta liteke ez zuek ez besteek ez jakitea halako graziaren jatorriaz. Agian ez dakizue zorioneko zein egunetan argiztatu zuen izar eder eta distiratsu horrek herri mesedetu hau, eta, horrela, ez duzue berri lausorik ere.

Hala eta guztiz ere **–jarraitzen du hizlari sakratuak–**, belaunaldiz belaunaldi sinesmen bat pasatzen ari da, eta horrek erakusten dit oso-oso antzinatik hartu zutela herri honetako seme-alaba zintzoek santu martiria haien Zaindari edo Patroitzat.

Ez al duzue askotan entzun **–dio–** San Pelaioren irudia urertzean aurkitu zutela? Ez naiz ausartzen esatera patronatuaren hasiera hori izan zela, baina bere irudiaren aurrean belaunikatu eta mires-teko nahiko arrazoi baditugu, jasotako dohainak ikusi ondoren eta abar, eta abar.”

Agerian dago historiak ez digula daturik ematen; jo dezagun, beraz, tradizioa, historiak erakutsi nahi ez digun hori argitu diezagun.

Egun batzuk atzera, Zarauzko bailara eder eta atseginaren independentzia zaintzeaz arduratzen diren inguruko mendietan paseoan genbiltzala, eta itsasaldean herri udatiar ederrak harrokeriaz erakusten dituen jauregiak aurrean genituela, halako euri-jasa hasi zuen, non gertuko baserri batean aterpea hartu behar izan genuen.

Barruan geundela, leku paregabea eskaini zigiten sutondo bikain baten ondoan. Horren babesean, 76ren bat urteko agurea ikusi ahal izan genuen, zeinak euskal aitonetan ohikoa den maitasunarekin erantzun zien egitera ausartu ginen galdera nekagarriei. Horri esker jakin genuen bere aita eta aitona ere babesten gintuen baserri hartan bertan jaio zirela, eta bera inoiz ez zela Oriora edo Zarautzera baino iritsi; urrutiena legoa batera egongo da.

Galdera batzuk egin ondoren, esan genion ea zerbait bazekien San Pelaioko ermita eraiki zuten garaiaz eta eraikuntza horren arrazoiez.

Erantzun zigun garaiari buruz ez zekiela ezer ziurrik; baina arrazoiari buruz, askotan entzuten omen zion aitonari kontatzen, neguko gauean

eta ikatz ederraren babesean, bere belaun gainean dantzan ibiltzen zuenean.

Kontatzeko eskatu genion, eta baiezkoa eman ondoren, txapela kendu eta gurutze santua egin zuen, santu baten izena hartu behar baitzuen ahotan, eta, esan zuenez, bere aitona ere horrela egiten baitzuen.

Aitortu behar da berak ez zituela ahaztu hirurogehitako hamar bat urte lehenago jasotako lezio onak.

Momentu bat bera ere galdu gabe, ondorengo istorioa kontatu zuen ahots dardartiarekin:

«Garai batean, Zarauzko ia gizon guztiak mari-nelak ziren.

Gaur egun bi txalupa ziztrin besterik ez dira gelditzen, baina, esaten dutenez, orduan asko ziren, nahiz eta moila inoiz ezagutu den okerrena izan. Izan ere, arrantzaleak, gauez, hondartzaraino etorri behar izaten zuten, arrantza-egun gogorren ondoren, arraunean besoak neka-neka egin da zituztela itzultzen zirenean. Ohol batzuk jar-

tzen zituzten gila hondarretan ez hondoratzeko, eta arrastaka eramaten zituzten ontziak elizaren ondoan zeuden harkaitzetara, hara urik ez baitzen iristen denborale handiengan ere.

Ikusten duzue, beraz, egun osoa arrantzale gisala egiteaz gain, peoi-lanetan ibili behar izaten zutela, etxera joan baino lehen.

Hori, Jainkoari esker, eguraldi ona egiten zuegan; txarra eginez gero, Zarauzko txalupek Getariara edo beste moila batera joan behar izaten zuten. Baina horrek gastu asko ekartzen zizkenez, gizonek ahalegina egiten zuten herriko moilara iristeko, etxetik kanpora gizonek bakarrik gastatu beharko zuten gutxi horrekin pasa baitzezakeen familia osoak. Eta horrek desgrazia handi batzuk ekarri zizkion Zarauzko herriari.

Hala, bada, eta esaten dutenez, neguko egun eder eta argi bat etorri zen, munduari buelta eman omen zion gure herrikide Elkano bizi izan zena baino lau mende lehenago.

Marinel guztiak poz-pezik jaiki ziren, neguko egun alai hartan beren familia maiteentzat aste guztirako ogia irabaziko zutelakoan.

Amak, emakumeak eta seme-alaba txikiak hondartzaraino joan ziren, eguna pasatzeko prestatu zizkieten jakien otarrak eramatera eta gauera arte agurtzeko musua ematera.

Itsasoan barrena abiatzen ikusten zituztenean, hondarretaraino mantsoki etorri eta oinak busitzen zizkieten olatuen zurrumurruarekin Adio!-en oihartzunak galtzen zirenean, eta Kantauri itsasoaren handitasun apaletik begira zituzten senide maiteak pixkanaka galtzen zuten kostalderantz begira ikusten zituztenean, zapiak astindu eta otoitzean hasten ziren, iluntzera bitarteko denbora ahalik eta azkarren pasa zedin.

Ez zuten asko espero gaixo haiek haien uste garbi eta santuen atzean ezkutatuta zegoela hainbeste maite zituztenen bizia galtzea!

(Agureak malko bat isuri zuen hona iristean, eta guri ere ikara eragin zigun gertakari haren oroitzapenak, nahiz eta hura bizi ahal izateko, mende batzuk lehenago jaiotze behar izango genuen.

Baimena eskatu ondoren, Aita Gurea errezatu zuen. Guk otoitzari erantzun genion, eta kontakizunarekin jarraitu zuen).

Bai **-esan zuen-**, asmo haiekin ez zuten berehala pentsatuko beren senideak eta zeukaten bizi-iturri bakarra galduko zutenik: heriotzaren kanpaiaren eta desgrazia izugarriarenaren sokari tiraka ari zirenik, berez, deitzeko premiarik gabe eta presaka etorriko ez balitz bezala.

Jaunak barkatuko ote zituen, ez baitzuten kulparik!

Itsasoratutako gizon ausartek espero bezala joan zen eguna.

Orduan, beren senarrak agurtu zituzten emakumeak gauean familia-giroan jan behar zituzten eltzeak prestatzen zituzten grinatsu, eta gizon dohatsu haien bila ateratzeko prestatzen ziren, emakumeak ikusita nekea ahatz zezaten eta hain bizitza gorabeheratsuak bakardade momentuetan sortzen zien gogaitasuna uxa zezaten.

Arratsaldeko lauak izango ziren, eta egun hartan bazirudien gaua aurreratu egin zela. Goizeko ortzi-muga argi eta alaia laino beltzez estaltzen hasi zen. Batak besteari borrokatzen zion postua, elkarri lotuta gelditu ziren arte, eta tarteko zirri-

kituak hain zeuden itxiak, ez baitzuten argi-izpi bakar bat ere pasatzen uzten txalupatxo gaixo haiek moilarantz gidatzeko. Moilan, min-malkoekin, deika ari zitzaizkien goizean pozez agurtzen egon ziren haiek.

Trumoioren hotsa espazio osoan zabaldu zen, eta, tristea bada ere, tximista bakar batek ere ez zuen argiztatu heriotzaren eta zorigaitzaren zulo ikaragarri hura.

Tximista ere aurka zeukaten. Iluntasun lazgarri hartan, olatuak, otso haragizale gisa, lehian ari ziren, haien artean zanbuluka eta borrokan zebilen harrapakin errugabe hura bereganatzeko.

Umeeak, emakumeak eta zaharrek oihiu, otoitz eta negar egiten zuten, eta biktima errugabe haien alde erregutzen zioten Jaungoikoari. Baina oihiu, negar eta erregu haiek guztiak oihartzun lausoe-tan galtzen ziren, trumoi-hotsen, haize-txistuen eta olatu-orroen artean.

Alferrik zen guztia. Desesperazio zorabiagariaren irudia zeukaten aurrean: agure babesgabeak, emakumeak..., denak gogorik handie-

narekin zeuden, behar izanez gero, deitu arren erantzuten ez zuten haiengatik, begiratu eta ikusten ez zituzten haiengatik hiltzeko. Beren amen besoetan zeuden ume txiki haiek soilik begiratzten zieten amei lasai, errukarriok ez baitzekiten beraiek izango zirela zorigaitz horren biktimarik handienak!

Koitaduek ez zituzten ezagutuko bere egunen egileak; ez zuten aukerarik izango, guk bezala, haien hezurren atsedenleku izango zen harlauzaren gainera errezatzera joateko, itsasoko arrainik gaiztoenak izango baitira gizon saiatu haien gorpuzkinak gordetzeko urnak!

Estutasun hilgarri horretan, zorigaiztoko emakume haiek korrika zebiltzan hondartzan batera eta bestera, eta, ekaitza bere une okerreanean zegoenean, hain trumoi beldurgarria eta hain tximista distiratsua entzun zen, zur eta lur utzi baitzitu han zeuden guztiak. Itsasertzean, puskatutako txalupa baten ondoan zeuden ahots bakanez honako hau oihukatu zuten denok batera: “Eskerrik asko, San Pelaio! Mila aldiz eskerrak, eskainitako guztia beteko dugu, gure emakumeei eta umeei beren senar eta aitak itzuli dizkiezulako”.

Han zeudenek ahots horiek entzun zituzten; haien emazteek eta umeek etengabe besarkatzen eta musukatzen zituzten, eta besteek banandu egiten zituzten, bere etxekoen berri galdetzeko.

Denak hil zirela esan zutenean, aitortu zuten txalupan agertu zitzairen San Pelaioaren irudiari babesa erregutu ziotelako bizi zirela beraiek, hark gidatu baitzituen zeuden tokiraino.

Irudia, hain zuzen ere, txalupan zegoen.

Palioa ekarrarazi zuten parrokiatik, eta bertara eramane zuten solemnitater handiz, ekaitzaren erdian; eta bertan egon zen irudia, antzinako ermita eraiki eta San Pelaio herri honetako zaindari izendatu zuten arte.

Behin obrak bukatuta, aldare nagusian jarri zuten, eta hantxe beneratu izan da 1851. urtera arte.

Ni askotan joan izan naiz erromeriara, eliza hura zegoen bitartean **–esan zigun–**.

Baina ermita hura erortzeko zorian zegoela eta, harpidetza baten bitartez, gaur egungoa eraikitzen saiatu ziren.»

Badakigu ermita berriaren lanak bertan behera gelditu zirela diru faltagatik, Narrosko Markes-Markesa Txit Gorenen eskuzabaltasunari esker behar zen dirua jarri eta obrak bukatu ziren arte. Eskuzabaltasun hori dela medio, Narrosko Markes-Markesa Txit Gorenak, publikoki, Zarauzko herriaren ongile izendatu zituzten.

Beraz, tradizioari esker badakigu Zarautzen San Pelayok zergatik izan duen eta duen halako debozio berezia, eta zergatik aukeratu zuten Zarauzko Zaindari.

FÉLIX DE ORTIZ Y SAN PELAYO.





LA ERMITA DE SAN PELAYO

EN LAS INMEDIACIONES DE ZARAUZ

Desde tiempos antiguos existía y existe en las inmediaciones de la villa de Zarauz una ermita dedicada al santo Patrono de esta villa: San Pelayo.

La primitiva ermita, ó cuando ménos la que por tal se tiene estaba situada en la orilla misma del mar al pié del monte Mendi-beltz que separa á Orio de Zarauz.

La actual ostenta sus bastante débiles muros á unos cien pasos enfrente á donde estaba su antecesora. La época en que fué erigida la primitiva ermita ya hemos dicho se ignora, pues ni los documentos que más adelante citaremos nos dan la menor idea de este precioso dato que la tradicion ha dejado borrarse de los libros de las generaciones.

Tampoco hemos podido hallar en documento autorizado las causas que indujeron á los vecinos de la villa de Zarauz á que eligieran como Patrono á San Pelayo, pues nacido en Tuy á principios del siglo X y entregado en rehenes por su tio Hermosio, obispo de la ciudad in-

dicada, al más soberbio de los reyes moros Abderraman III, en cambio de su libertad, y habiendo sido despedazado por orden de éste y arrojado al Guadalquivir por haber confesado el santo niño la fé de Jesucristo, parece á primera vista raro que los de Zarauz fueran á buscar al jóven mártir de la fé á los pocos años de su martirio (segun parece) para mediador suyo en el Reino del que para tanta gloria lo habia criado.

El caso es, que segun consta en la obra inédita de D. Joan de Echeveste, presbítero que fué de la villa de Zarauz y que la terminó en el año 1619¹ se trabajó mucho para este pueblo por adquirir reliquias del santo y depositarlas en la ermita que se le habia erigido. Trabajaron tanto al respecto, que el digno hijo de la villa que nos ocupa, H. Joan de Iturrondo de la Compañia de Jesús², trajo desde Oviedo varias reliquias cuyos documentos auténticos hemos tenido el gusto de leer en la misma obra ya citada del Sr. Echeveste.

En un precioso sermon que predicó en bascuence el digno párroco de la iglesia de Zarauz, Sr. Arizmendi,

¹ De esta curiosa obra inédita aún, que trata de la fundación de Zarauz y hechos más notables que en ella acaecieron, sólo existen dos ejemplares. El original está en el archivo del Sr. Marqués de Narros, en Zarautz: y el otro, según noticias, lo tiene el Sr. de Lardizabal, exdiputado provincial.

² Había nacido en el caserío de esta jurisdicción llamado Agirre.

el año 1852 y el día de la fiesta del Santo, dice á sus feligreses: (Traduccion libre) Puede ser que ni vosotros ni otros sepan el principio de tanta gracia. Tal vez ignoreis el día feliz en el que á este pueblo favorecido alumbró esa hermosa y refulgente estrella y así ni noticia remota teneis de él.

Sin embargo; *(prosigue el orador sagrado)* de generacion en generacion va pasando una creencia que me demuestra que desde muy atrás los nobles hijos de este pueblo elijieron al santo mártir como Guarda ó Patrono de ellos.

¿No habeis oido muchas veces, *(dice)* que la imágen de San Pelayo fué hallada en las orillas de las aguas? No me atrevo á decir que este sea el principio del Patronato, pero tenemos motivos suficientes para adorarlo arrodillándonos ante su imágen en vista de las gracias etc. etc.

Ya vemos que la historia no nos suministra datos; vayamos, pues á la tradicion á que nos esplique cuanto la historia no nos quiere enseñar.

Días pasados, paseando por las montañas que se recuestan por la espalda y lados de Zarauz, como si fueran las encargadas de velar por la independencia del precioso

y ameno valle en cuyo cuarto lado y en la orilla del mar está ostentando sus diversos palacios la bonita villa veraniega, dejó el cielo desplomarse tal columna de agua, que nos vimos obligados á guarecernos en un caserío vecino.

Una vez en él nos ofrecieron un puesto junto á una magnífica hoguera, á cuyo amparo pudimos divisar un anciano como de 76 años que, con el cariño proverbial en el aitona euskaro, nos iba contestando á las molestas preguntas que nos atrevíamos á dirigirle. De entre ellas pudimos sacar en consecuencia, que también su abuelo y padre habían nacido en el mismo caserío que nos albergaba y que él jamás había salido más que hasta Orio y Zarauz, pueblos, que el más lejano distará una legua.

Después de varias preguntas dijímosle si sabía algo que se refiriese á la época en que se erigió la ermita de San Pelayo y las causas que motivaron esta erección.

Contestónos que la época no sabía de fijo; pero que las causas, varias veces había oído relatar á su abuelo cuando las noches de invierno y al amparo de buenos tizones lo solía hacer bailar en sus rodillas.

Invitámosle á que refiriera el caso, y accediendo á nuestros deseos, se sacó el sombrero y se santiguó; pues

iba á tomar en boca el nombre de un santo, y además segun nos dijo, su abuelo solia hacer lo mismo.

Justo es que él no olvidara las buenas lecciones que setenta y tantos años atrás habia recibido.

Sin perder un momento y con la voz un tanto trémula empezó y concluyó el relato siguiente:

«En otro tiempo Zarauz era un pueblo en el que todos los hombres eran hombres de mar.

Así como hoy, dicen, no hay más que dos lanchas insignificantes, entónces habia muchas, aunque el puerto siempre ha sido de lo peor que se ha conocido, pues, cuando por la noche regresaban los marineros de la dura faena de la pesca, cansados sus brazos del remo, tenian que venir al arenal y colocando unas tablas para que la quilla no se hundiera en la arena, las arrastraban hasta al lado de la Iglesia donde habia unas peñas que el mar en su mayor marejada no alcanzaba.

Ya ven Vdes., que además de trabajar todo el día como pescadores, tenian que trabajar como peones ántes de ir á casa.

Esto, cuando, gracias á Dios, hacia buen tiempo; que si hacia malo, las lanchas de Zarauz tenian que ir á Guetaria ú otro puerto. Pero como esto les acarreaba gastos, pues en familia podían pasar con lo poco que los hombres solos gastaban fuera de ella, hacian lo posible por llegar á este puerto, lo que no dejó de proporcionar varias sensibles desgracias al pueblo de Zarauz.

Pues bien; amaneció un día hermoso y claro en invierno un día, dicen, cuatro siglos ántes de que viviera nuestro paisano Elcano, que cuentan dió la vuelta al mundo.

Todos los marineros se levantaron contentos y alegres esperando en aquel día tan risueño de invierno, ganar el pan de una semana para sus muy queridas familias.

Las madres mujeres é hijos pequeños fueron hasta el arenal, llevándoles en las respectivas cestitas, las raciones que para aquel día les habian preparado y á darles el beso de despedida hasta la noche.

Al verles hacerse á la mar, cuando ya el eco del ¡Adío!... se perdía entre el murmullo de las olas

que mansamente venían á apoyarse en la arena y rociar los pies de aquellas almas, cuyos séres más queridos contemplaban en la inmensidad serena del Cantábrico mirar hácia la costa que perdían, ellas agitaban sus pañuelos y empezaban á rezar para que el espacio de tiempo que había hasta el oscurecer pasara pronto.

¡Cuán léjos estaban las pobrecillas de creer que en aquellos puros y santos deseos estaban escondidos los de acortar la vida á los que tánto amaban!

(El anciano derramó una lágrima al llegar aquí que nos hizo estremecer por la pena que nos causaba el recuerdo de aquel episodio que para presenciario hubiéramos tenido que nacer siglos ántes.

Rezó despues de habernos pedido permiso, un Aita Gurea, que nosotros contestamos, y prosiguió su relato.)

Sí, *(dijo)*, con aquellos deseos, no querían más sino perder cuanto ántes á sus deudos y el único recurso de vida que tenían: tirar de la cuerda de la campana de la muerte y de la más horrible desgracia como si ella no llegara á pasos presurosos sin necesidad de llamarla.

¡Dios las haya perdonado, que no tenían culpa!

El día pasó cual los arrojados hombres de mar esperaban.

Ya, aquellas mujeres que despedían á sus maridos preparaban ansiosas las ollas que habian de figurar en medio de la paz familiar por la noche, y preparábanse á salir al encuentro á aquellos virtuosos varones para que á su presencia olvidaran el cansancio, y desecharan de sí el tédio que vida tan azarosa debia proporcionarles en los momentos de soledad.

Serian las cuatro de la tarde y parecia que la noche se avanzaba aquel día, y era que el horizonte claro y sonriente de la mañana se iba cubriendo de densas nubes que se disputaban el puesto unas á otras, hasta que quedaban ensambladas y los intersticios. tan herméticamente cerrados, que no querian dejar pasar ni un solo rayo de luz para que guiara aquellas pobres navecillas al puerto donde con lágrimas de dolor estaban llamándolas, aquellas mismas criaturas que tan alegres las despidieron por la mañana.

Empezó el trueno á atronar los espacios y, cosa triste, apénas si un relámpago tan solo, venía á iluminar aquella inmensidad, convertida en ántro horrible de muerte y desventura.

Hasta el relámpago se conjuraba contra aquellos séres que, en aquella tenebrosa oscuridad, luchaban con las olas que cual carniceros lobos hambrientos se disputaban aquella inocente presa que entre ellas se agitaba.

Los niños, las mujeres, los ancianos gritaban, rezaban, lloraban, suplicaban al Jaungoikoa por aquellas inocentes víctimas. Pero toda esta gritería, lloros y súplicas se perdían como vagos ecos, entre el ruido de los truenos, el silbido de los vientos y el rugido de las olas.

Todo era inútil. Un cuadro de desesperacion vertiginosa se presentaba a la vista; todos estaban, ancianos desvalidos y mujeres poseidos de las más vehementes ánsias de morir si era necesario, por aquellos á quienes llamaban y no respondían, miraban y no veían ¡Solo las tiernas criaturas que reposaban en los brazos de sus madres miraban á estas con tranquilidad, sin conocer las inocentes

que ellas eran las víctimas sobre las cuales más inflexible caía la desgracia!

¡Pobres Criaturas; ya no conocerían á los autores de sus días; ni siquiera les quedaria como á nosotros el recurso de ir á orar sobre una losa bajo la cual yacerían sus huesos, pues los pescados más malos del mar serian las urnas donde se depositarian los restos de tan esforzados varones!

En este estado de mortal angustia corrian aquellas desgraciadas mujeres por el arenal en toda su gran extension, y cuando la tempestad estaba en su mayor furor oyóse un espantoso trueno y un relámpago tan refulgente que dejó absortos y mudos á todos cuantos allí se encontraban. Solo unas voces en la orilla del mar junto á una barquilla rota, gritaron á una ¡Gracias San Pelayo! Gracias mil veces, nosotros cumpliremos cuanto hemos ofrecido, pues devuelves a nuestras mujeres é hijos sus esposos y padres.

A estas voces despertaron los que allí se hallaban; las mujeres é hijos respectivos no dejaban de abrazarlos y besarlos, mientras las demas los separaban para preguntar por los suyos.

Al decir que todos habian perecido, declararon que ellos vivian por haber invocado el nombre de San Pelayo cuya imágen se les presentó en la barquilla y los guió adonde estaban.

Efectivamente la imágen estaba en la barquilla.

Hicieron traer el Pálio de la Iglesia parroquial y lo llevaron á ella con gran solemnidad, en medio de la tempestad, y en ella estuvo de positada la imágen hasta que se erigió la Ermita antigua declarándo á San Pelayo patrono de este pueblo.

Una vez concluida esta obra se colocó en el altar mayor donde se ha venerado hasta el año 1851.

Yo he ido muchos años á la romería mientras existia aquella ermita, (*nos decía*).

Pero como aquella ermita amenazara ruina, por medio de una suscripcion se trató de erigir la actual.»

Lo que se sabe es que la nueva Ermita tuvo que suspender la obra por falta de recursos hasta que la munificencia de los Excmos. Señores Marqueses de Narros, facilitaron lo necesario, á cuyas espensas se concluyó la

obra; declarando, por este rasgo de generosidad, á los Excmos. Sres Marqueses, públicamente, bienhechores de la Villa de Zarauz.

Ya sabemos, pues, gracias á la tradicion, por qué en Zarauz se le tiene y ha tenido especial devocion á San Pelayo, y se le eligió Patrono de la Villa.

FÉLIX DE ORTIZ Y SAN PELAYO.

Se ha respetado íntegramente el texto, salvo ligeras correcciones en la puntuación.







